


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Patxi Bengoa Sagasta

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1932-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Meatzerreka auzoko Meatzaga baserrian jaio zen 1932an. Ama Meatzagakoa bertakoa zuen eta aita Aramaioko Arexola auzoko Keristi baserrikoa. Bost urterekin hasita zazpi urtera arte Arrasateko mertzedarrietan ikasi zuen. Gero hamahiru urtera arte eskola nazionalen ibili zen Martin Calvo Sanabria maisuarekin. Abadiñoako Irazolako Baxili Ezenarrorekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten. 26 urtera arte baserrian egon zen. Gero FAGORren lan egin zuen jubilatuta arte.

Zintak

ARR-073

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-18
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Eskolara Arrasatera

- **Erref:** ARR-073/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bost urterekin Arrasateko mesedetako mojekin hasi zen eskolan. Gero eskola nazionaletara pasatu zen, Martin Calvo Sanadria maisuarekin. 13 urtera arte ibili zen eskolan. Euskaraz egiteagatik asko zigortzen zuten eskolan.</p>

Transkripzioa

- Eskolan zenbat urtekin hasi ziñan?
- Eskolan, ez dakit neuk be fijo baiñe, bost bat urteaz edo zerera, Mondrauera, monjetara ta hantxe lehenengo letrak ikesi ta gero.
- Monjetara, ze monjakin? Akordetan zara?
- Merzedarixak zien.
- Goguen dauketzu maistran...
- Izenak eta, keba!

-Bakarren bat.
 -Ezta, ideaik be ez dauket.
 -Eta hauxe, ze, pentsaitten dot eskolie erderaz jasoko zaueilla.
 -Dana, dana, bai.
 -Eta kastiguik eta izeten zeuen, euskeraz eittiegaittik?
 -Han monjetan hainbeste ez. Gero, zerera fan giñenien, bakitzu nazionaleta fan giñenien, han bai, bueno. Han dana erderaz ein biher zan /bizan/. Ta ez gakixen.
 -Oseake, ordun monjetan ez zeuen ikasi erderaik?
 -Ez gutxi, bapez. Denpora gutxi ein nauen monjetan.
 -Zenbat urte?
 -Urte bi edo, holaxe. Urte pare bat ein nittun monjetan, bai.
 -Asike han trankil, orduen.
 -Bai.
 -Eta gero handik ya nazionaleta?
 -Nazionaleta.
 -Hango maisuen izenik, goguen dauketzu?
 -Bai. Martin Calvo Sanabria.
 -A, Calvon eskolan orduen.
 -Bai.
 -Calvo Sanabria?
 -Bai.
 -Zenbat urtetan euki zendun hau maixuuau?
 -Hori ba, ibili gintzen denpora guztien. Fango nintzen zazpi bat zortzi urteaz ta hamahiru urtera arte, hamabi- hamahiru urtera arte.
 -Zer moduzkue zan, Calvo hau?
 -Diktatorie, tremendue.ai. Eskolie erakusten txarra ez zan, baiñe gogorra. Makillie ugeri ta. Eskolan holan bape listo samarrak edo ondo manejetan zien, baiña gure moduen torpe samarra zana egunero kastigaute ta egurre, keie.
 -Baiña, baiña, alde batetik euskeraz eittiegaittik eta bestetik leziñue ez ikastiaitik?
 -Leziñue ez ikesteagatik eta danagatik eta euskeraz derrigor ein biher zan / bizan/. Han ta leku danetan, orduen honek e maestro nazionalak eta. Han dana ein biher zan /bizan/.
 -Zuek eraztunik edo zeozer eukitten zauein, batak bestiai pasaitteko euskeraz einddakuen ta?
 -Ez.
 -Berak entzun ta egurra?
 -Berak entzun ta egurra. Euskeraz ikusten baziñuen. Ta beti kastiagute, ba errekreo barik eta holako kastiguen goten zien. Ta hantxe.

2. Oinez joaten zen eskolara

- **Erref:** ARR-073/003
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:07:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Kanikaka, tronparekin, pilotan, toke-torreka, sokasaltoka... jolasten zuten. Goizean eskolara, bazkaltzera etxera eta buelta eskolara, dena oinez egiten zuen. Auzoko neska-mutilak kuadrillan joaten ziren eskolara.</p>

Transkripzioa

-Eskolan edo errekreuan ta ze jolas klase itten zien garai haiettan?

-Kanikaka ta tronpiaz ta.

-Kanikak ta tronpiakin be bai e!

-Bai.

-Ta pelotan ta eitteik izeten zauen edo?

-Bai, eitten gauen bai. Han eskolien aurrekaldien euen palazio zahar bat eta haren paretan kontrara eitten gauen ta gero frontoien be bai iñoz ibiltten giñen, pelotan ta.

-Futbolien ta eitten zauein?

-Futbolien ta hainbeste ez, pelotan gehixau ibiltten giñen.

-Eta toketorreka eta holako jokuek be bai?

-Baitte, horrek be bai. Soka saltoka ta.

-Soka saltoka neskakin edo zeuek?

-Neskakin, danok batera, neska-mutil ta.

-Zelan egoten ziñain, klasian neska-mutillak alkarrekin edo?

-Ez ez, mutillek bakarrik. Calvok mutillek bakarrik euen.

-Eta monjakin, igual?

-Monjak danak nahaste. Neskak ta mutil ta danak.

-Eta gero handik monjetatik urteten eben neskak, ze faten zien, nazionaletara hareik be edo monjetan jarraiketen ebein?

-Nazionaletara ta bertan jarraitu igual baten batzuk, baiñe general nazionaleta. Han gaztiek egoten zien.

-Ta orduen zu, hamahiru urtera arte Calvo honekin. Hau famosue izan zan ezta?

-Bai, joño. Eskolie erakusten ta txarra ez zan, maestrue ona zan, baiña gogorra. Bueno!

-Eta zu hamen jaixo baziñan, zelan dauko izen a etxe honek...

-Mietza.

-Montzon. Mietza Mietza.Montzon behekoa da bai.

-Zu Mietzan jaixua ziñan , eskola zelan faten ziñan?

-Oiñez.

-Egunero?

-Egunero. Ta eguerdixen bazkaitten oiñez etorri etxea.

-Eta atzera bazkaldu ta eskola?

-Atzera ordu bixetarako eskolara. Ta ilunkeran [...] etxien palizie. Errezaittera fan biher izeten zan ta.

-A, errezaittea? Ze eittea?

-Eskolatik etxera illunkeran urteten zauenien bostetan, aguro etorri biher ganadu zain edo. Hara be nonor fan biher izeten zan ta. Lana egoten zan etxien.

-Eta etxeko lanakgatik etxien sekulo geratu ziñen?

-Bai bai, igul bai, iñoiz bai.

-Igal ittaurrien eta hola?

-Ittaurrien ibilttearren ta iñoiz bai. Askotan ez, baiñe bai.

-Eta hemendik ze faten ziñein, kuadrillan bat edo?

-Bai, auzoko danekuek faten giñen, auzo dana faten zan.

-Eta Mietzerrekan zuk ez zen ezautu, Mikeletz etxeko eskolia?

-Nik ezautu bai, baiño eskolaik eta emoten-ta ez.

-Ya ez euen emoten eskolaik han.

-Ez ya ez zauen emoten. Horrek gerra ezkeru ez da egon eskolaik. Aurretik bai. Mobimientue "trentaiseiseko" gerratik honantza, ez da egon hor, eskolaik ez da emon. Nik ez dot ezautu hor eskolaik emoten.

3. Argindarra Uba errotatik; ura etxean

- **Erref:** ARR-073/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Argindarra auzoko Uba errotatik (gaur galduta) etortzen zen. Udar ez zuen indarrik izaten, ur eskasiagatik. Indarrik ezean karburoarekin edota kandlekin argitzen zuten. Etxe barruan ura beti ezagutu du Patxik.</p>

Transkripzioa

-Orduen eskolatik hamahiru urtekin urten ta zu garai hareitan etxian goguen daukotzu ura ta inddarra ta euen edo ez?
-Ure? Ure gutxi. Inddarra be bapez edo gutxi. Inddarra hor beheien euen Uba baserri bat, errotie. Ta neguen zeozer. Holan, gorrittasun bat etorten zan. Ta udan urik ez zan egoten ta bapez.
-Bapez. Eta esan dozu egon zala errota hori. Oin ez dau ya?
-Oin ez dau errotarik ez.
-Zelan eukan izena horrek?
-Uba.
-Uba?
-Uba, bai.
-Uba errota.
-Bai. Ta hortik emoten euen argindarra ba neguen.
-Zer eukien hor, saltua?
-Saltue euen bai. Hortxe beheien dau zera, Mondraueko herriko uren tomie.
- Uba errotako kontuakin.
-Bai, hor dau errotie ta lehen esan dotsutena, neguen ure egoten zan ta udan ez zauenien ba ezebez. Etxien jarri ta ezelako argik bez.
-Argirik ez euenien, zer eitten zauien? Karburuekin edo?
-Karburaue ta kandelie ta. Bai, karburue generalien karburue.
-Eta etxe barruen ure?
-Etxe barruen ure, ni jaixo, aittekin; nire aittek ekarri eban hortixik goittik, mendi tontorren batetik holako iturri txikitxo bat zan ta hantxe justo-justo. Orduen asko biher be ez zan. Oingo beste biher izen ezker hartarako bez, baiña. Zeozer etxe barrureko ure bai, nik beti ezautu dot ure. Bai, nik beti ezautu dot ure etxe barruen. Aittek ekarri eban handik goittik.
-Noz sartu jatzuen benetako argixe, hemen?
-Joe, Iberduero, zenbat urte da ba ondion?
-Ordura arte beti gauzak errotakuakin?
-Ez, Iberduerona bai, baiña pobrie etorten zan. Hor beherao euen trasformadore bat ta ez euen biher dan /bidan/ beste argirik emoten. Por ejemplo ba bizarra kentzeko makiñie be ibili ezinke egoten zan. Biher dan /bidan/ moduko argixe sartu dala hemen izengo die, hogeita hamar bat urte. Oin hogeita hamar bat urte ia Iberduerok berak hartu zitxuen zer danak-eta. Hemen euen hor beheien trasformadore bat euen ta aurretik euen lineako hor errotakuek, alanbrie be ahal dan modukuek eta errotako argi horreaz /argixorreaz/ egoten zanak eta.
-Edozein haixe boladaz botateko.
-Edozein boladak eta gero ba ez euen zertute, neutralizate be. Auzen ba iguel zenbat eta urriñau ta alanbre meheiaue ta. Zatike inddako lana ta urriñera ta ez zan ezebe ikusten, gorrittasun bat bakarrik.

-Iputargixa baiño gutxiau?
-Antzea, antzea.

4. Meatzerreka auzoan galdu diren baserriak

- **Erref:** ARR-073/005
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Hainbat baserri-etxe galdu egin dira edo hutsik daude gaur egun Meatzerreka auzoan. Laurogei bat ardi eta dozena bat ganadu buru izaten zituzten Meatzaga baserrian. Idiekin etxeko lanetan eta egur garraioan jarduten zuten. 26 urterekin Fagor lantegian hasi zen lanean.</p>

5. Gose denborako kontuak

- **Erref:** ARR-073/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Fagorren jardun zuen lanean jubilatuta arte. Etxean sei senide bizi ziren. Gerra ostean Arrasateko alondegira eramaten zuten eman beharreko gari kuota. Gose denboran etxean ez zuten goserik izan, baina kaleko jende asko etortzen zen jateko eske.</p>

Transkripzioa

-Ta gero ia Fagorrera?

-Bai.

-Ta Fagorren ia jubilatu arte, ezta?

-Jubilatu arte. Hogeta hamahiru urte.

-Zenbat jende bizi zizkizun etxian?

-Etxian? Amama, aitte, ama ta neu. Ta aurretik aman aizta bat be hemen auen ezkondu arte. Ha ezkondu zan Mondraguera, kalera.

-Tia?

-Tia, bai. Ba haixeik. Ta kalera ezkondu zan ta...gero ba arrebie, aitta, ama ta neu. Ta amama.

-Tropa haundixa be ez orduen oso.

-Ez, ez.

-Ta hainbeste ganau zainketako aitta ta zeu?

-Aitte ta neu. Ta amak-ta be... hamen lana kristo danak eitten auen, ez auen barriketarik. Toketan zana, danetik ein biher zan /bizan/.

-Soruetan ze eukitten zeuein?

-Soruetan ba garixe ta, artue ta. Patata apur bat eta.

-Garixa entregaitten zanieta akordaitten zara?
 -Bai.
 -Asko entregau biher izeten zebein?
 -Segun ta ze eraitten zauen, ze deklaratan zauen ta haren proporziñuen ta, iguel hartu baiño gehixau.
 -Bai, entzunda dakot.
 -Hartu baiño gehixau.
 -Erosi ein biher...
 -Entregetako. Patatie be erain ta deklarau, zenbat erain dozun. Ta hartu ostias, ezebez. Ta entregau ein biher hainbeste kilo ta etxien ez. Txikixe eruen ta "de vuelta". Barrixe erueteko gehixau, hobie.
 -Nora eruten zebein zueik?
 -Alondigara, Mondraguera.
 -Hori Alondiga hori nun euen? Udaletxe inguruen?
 -Bai, Udaletxe azpizen.
 -Gerra osteko gose denporak eta horrek zuk ezautuko zttuen, ezta?
 -Bai, apur bat ezautu nauen, bai.
 -Baserrittan ez zan gose haundirik pasau, baiña...
 -Nik neuk e, holan gosie gosie...bai, [hasirik] baiño gehixau, baiñe holan derrigorreko goseik ez dot pasau. Ogi apur bat bada be betik egoten zan jateko, artue edo ogixe edo. Etxien eindde. Etxien eitten zan.
 -Kaleko jenterik ez zan etorten eske?
 -Eske? Buah. Kendu barik, baiñe ze ingo eutsezun /eingotsezun/ ba, ez auen ta. Emun, ezin emun. Ez auen ta ezin emun.

6. Gerra osteko jatorduak

- **Erref:** ARR-073/007
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errotak itxita zeudenean, herriko errota batera joan behar izaten zuten etxerako garia ehotzera. Baina zahi asko eta irin gutxi ematen zuten bertan, eta horregatik Elorriora joaten ziren ehotzera. Babarrunak eta urdaia jaten zituzten egunero eguerdian, eta porru-patatak gauean. Gaztaina denboran gaztainak, egosita edo erreta. Esne trago bat eta ohera.</p>

Transkripzioa

-Ta zeuk bazeukotzuein hola garirik edo artorik edo ixoteko? Zela eitten zeuein?
 -Elorrixora edo ahal dan lekuetara fan biher. Hor Mondraguen auen fabrika bat, Arrasate. Han kupue kanbixetan auen. Ba eruen garixe, ta hainbeste gari eruen ta emuten eutsuen honenbeste urun. Baiñe gehixena zahixe emuten auen, ta harekin pasaik!
 -Ogixe zahixekin eitten zebein?
 -Galbahittute. Galbahittute eitten zan. Galbahien pasauta.
 -Oseake zuek zeuentzako erun biher zeueiña be, ha be neurtuta euen? Zuk zeure kupua pagau eta gero. Beste urunakin ezin zeiken ein zeuk gure zebena? Ez?
 -Keba. Ha, errotak eta zerraute auzen ta obligaute zingozen horraxa faten.

-Ta mundu dana leku batera.
 -Karo. Danak leku batera. Mondraue dana horraxa fan biher izeten zan, ta erueten zan, ba, berrogeita hamar-berrogei kiloko zakua. Ta emuten eutsuen e, nik ze dakitt, hogei kilo urun edo eta, gehixena zahixe. Ta ha ba gero galbahiketan [dozun] ta urune geraketan zan ezebezien.
 -Etxerako lain izeten zan?
 -Ez, falta.
 -Artua jan biher asko?
 -Artue, artue jan biher, artue egunero!
 -Ze izeten zan orduko menu normala?
 -Babak eta urdaikixe!
 -Ta gabien?
 -Gabien porru-patatak.
 -Ta gaztaiña denporan?
 -Gaztaiña denporan gaztaiñak be bai. Gaztaiñak guk asko gauken, gaztaiñadixe gauken guk hemen etxe gaiñien dezentie ta, gaztaiñak-eta jaten gittuen, gaztaiña erriek eta...
 -Ta egosixak?
 -Egosixe eguardixen jaten zan jeneralien. Gabien erreta. Ta esne trago bat eta ogera. Uskarrak [botaten] ta aide!
 -Bueno, gaztaiña denporan libre da, ezta?
 -Gaztaiña denporan libre da, bai!
 -Ez, ze Oñetin, zure edadeko jentiak, zu baiño zahartxuauek esaten ostain, bi edo hiru etxetan tokau xaten, udazken-neguko afaixa izaten zala gaztaiñak eta saldia.
 -[Hiruka be], esnie.
 -Ta gero esnia, karo. Ta ogera.
 -Ogera.

7. Garia egitea makinan mende

- **Erref:** ARR-073/008
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:18:27. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Okelatarako behiak hazten zituzten. Garia lehenengo igitaiarekin ebakitzen zen; gero idiekin tiratutako sega-makina etorri zen, baina honek gari-jotzeko makina eskatzen zuen. Baserrí txikiek ezin zuten hainbeste makina erosi. 1955 urte inguruan utzi zioten garia ereiteari.</p>

Transkripzioa

-Zueik ganauak-eta ze zeuketzein, behi esniak, edo okelakuak?
 -Okelakuek. Okelakuek.
 -Baiña etxien eukiko zebein bakarren bat.
 -Esne behirik? Oingo moruen esne behirik ez. Baten fan ta ostikarie, lapikora bat eta pla!! Aide! Atrapau zak lapikuoi tta!
 -Ze zaukotzein, ganau gorrixa?
 -Gorrixe ta [...] eoten zien. Ta ostikarie gehixau esnie baiño.
 -Baiña etxera erretiretan zittuein lo eittera edo libre ibiltten zien?

-Etxera, etxera. Etxera ekartzen gittuen lo eitten ta. Bai.
 -Ta hamen, karo, zuek garai baten seguru asko bedarra ta garixe igual idixekin tiratutako makiñekin ebagiko zeuein garain baten.
 -Bai.
 -Ta gero, zera, traktorie-ta etorri zanien ze aldaketa klase...
 -Ikeragarrix. Ikeragarrix. Lehelengo garixe, ba, lehelengo igitaixekin ebaitten zan. Gero etorri zan segadora bat idixekin tiretu ta garixe ebaten auena. Eitten gittuen azauek, ba, holako dezentiek. Ta hak botaten zittuen buruek ahal dan moruen, baiña hartarako gero hareik joteko trilladorie biher zan, zegatik burue geraketan zan atzien ta aurrien. Ta haik dana pasau biher zan /bizan/ makiñan, kentzeko dauken gari alie. Ta halaxe.
 -Oseake makiña bat ekarriz gero, gero beste zazpi biher ezta?
 -Beste zazpi biher! Ta hemen basarri txikixek auzen ta holako makiñak-eta erosteko-ta nun? Bah! Baeuzen, bai, hemen Mondrauen baeuen bat ibiltten zana, ta ha ibiltten zan etxerik etxe zerketan, gari joten.
 -Ta sozidadien-ta ez zittuein erosten holako gauzak?
 -Sozidadien aukien horreik mondrautarrak, bai. Baiña sozidadetik aparte ibiltten zan etxerik etxe garixe joten. Horrenbesteko bat kobrau ta...
 -Zela pagaitten zan, dirutan edo garittan?
 -Dirutan, dirutan pagetan zan. Ez dakit ze kobretan zan, ahaztute dauket. Aspaldiko kontuek die ta.
 -Noiz itxi zotsain garixe ereittiari?
 -Garixe eraittiai? "Cincuenta y cuatro-cinco", hortxe, holakotxe bat.
 -Bai? hain goiz? Oñatin ya sesentatan sartuta.
 -Ez, guk "cincuenta y ocho" batetik aurrera ta itxitte gauken.
 -A karo, baiña orduan zu fan ziñan Fagorrera, ezta?
 -Ni Fagorrera fan nitzen lanien, bai. Guk "cincuenta y cinco" holako baten itxiko gutsen garixe eraittiai. Ta gero garixen lekuen eraitteko aillorbia, ta ez zan sikeketan kristoatik be. Euzkixe [... igerra] egoten zan ta illunkeran berdie.

8. Arrasate inguruko jaiak eta feriak

- **Erref:** ARR-073/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Auzoetako eta inguruko herrietako jaietara joateko ohitura zuten, batez ere Arrasatera, Bergarara eta Elorriora. Baita ferietara ere. Domeketan ez ziren kalera jaisten, baina Arrasateko feriara hilero joaten ziren. Traktoreak azaldu aurretik ere, Arrasateko feria galtzen hasita zegoen. Elgoibarkoak eta Arrasatekoak omen ziren Gipuzkoako feriarik onenak.</p>

Transkripzioa

-Zure gazte denporan auzoko jaixak edo hola erromerixeta ta nora juateko joerie zeuketzein?
 -Ba auzoko jaixak hemen bertan izeten zien-ta. Udalara-ta, Udalan agostuen izeten zien San Estebanak ta horra. Gero beste zona bat hor goixen San Migel de Monte.
 -Hori ze herrittakua?

-Hori Bergara partera heltzen da ta horra be bai.
-Elorrixa aldera ta?
-Elorrixa aldera ta be bai, Ferixa Nausikutan ta faten giñen.
-A, ferixara Elorrixora ta.
-Ferixa Nausikuek die Elorrixoko fiestak, septienbrien lelenguen, lelengo domekan izeten die ta faten giñen Elorrixora-ta. Ta Mondrauen San Juanak eta Santo Tomasak-eta.
-Ta bestela holan domeketan ta kalera fateko ta ohitturaik?
-Pentsau, gaztetan pentsau bez. Bertan auzuen.
-Ta musikaik eta eukitten zauen hemen?
-Keba, ez euen hemen musikaik.
-Ta tabernie edo holan?
-Ezta, ezta, ez euen.
-Dantza eittea orduen jaitten ta hola bakarrik?
-Jaitten ta holaxe bakarrik.
-Ta pagau biherrik izeten zauen?
-Bai, honbre, korruiek egoten zien ta pagau ein biher zan /bizan/ dantzan eittie.
-Musikarixek pagaitteko.
-Musikarixek pagetako.
-Eta ferixak eta, norako joerie izeten zauen?
-Ferixie Mondra, Mondra.
-Hillero.
-Hillero, bai.
-Norbaitek kontau ostan, traktoriek eta hasi zienien ferixak hondatu ein ziela.
-Aurretik be bai ia Mondra galdute euen traktoriek eta hasitte baiño Mondran ferixa ona eitten zan e! Ganau asko juntatzen zan. Ta baiña apurke-apurke galduaz fan zan, traktoriek eta etorri orduko be galdute. Makiñarixie gero egoten zan azkenien ta. Bestela, ganau asuntue, idi ta behi ta hori Mondran ferixa ona eitten zan. Esaten daue Elgoibar ta hurrengo Mondra zala ferixaik onena eitten zana hemen Gipuzkoan. Hala esaten daue. Gaiñera Mondran tratante asko egoten zan idixekin-ta.
-Zuek idi probatan ta sekulo hartu dozue parteik?
-Ez, ez ,ez, ez.

9. Auzolana ondo antolatuta

- **Erref:** ARR-073/010
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:24:34. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoko bideak konpondu, mendi bideak garbitu eta auzoko ermita zaintzea auzolanean egiten zen. Hamabost ira-gurdi inguru ekartzen ziren urtero, ukuiluko azpietarako.

10. Ganaduaren aseguruia ermandadeetan

- **Erref:** ARR-073/011
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ganaduen aseguru auzoko ermandadeak betetzen zuen. Meatzerrekako ermandadea desegin zenean, Bergarako Goimendi auzo mugakidekora pasatu zen Patxi. Ermandadeko "komenziñuak" (konbentzioak) ezartzen zuen gaixorik edo hil zorian zegoen ganaduaren balioa.

11. Arrasateko zabortegia Meatzerrekara

- **Erref:** ARR-073/012
- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Francoren garaian auzo-alkatea Udalak izendatzen zuen, sarritan urte askotarako. Udalak Arrasate herriko zabortegia eta gero errausketa-instalazioa auzoan jarri zizkien. Ondorioak larriak izan ziren auzoarentzako: kea, arratoiak...

12. Gaurko pinudiak lehengo larre gunek

- **Erref:** ARR-073/016
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:39:59. **Bukatu:** 00:43:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaur egun zaintzen dituzten abere bakarrak ardiak dira. Gazta egiten jarraitzen dute. Gaur pinuak dauden basoetan lehen ira eta larrea zegoen, eta baita haritz banaka batzuk ere. Lur-sail gehienak libre zeuden, itxiturarik gabe. Urrian ebakitzen zuten ira; ihartu, gurdia kargatu eta etxera ekartzen zuten. Txerri, untxi eta oiloak ere bazituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com